

24 ORDUAK EUSKARAZ**24 ORDUAK EUSKARAZ***1976-III-27**Fr. L. Villasante*

Euskal Diputazioetako Ordezkar! jaunak!

Euskaltzaindiko jaun-andreak!

Eta Irrati bidez gure batzarrearen entzule zaituztegun guztiok!

Arratsalde on Jainkoak!

Euskaltzaindiak, sortu zenez geroztik, nik dakidala, ez du sekula gaur duen bezalako aukerarik izan. Bere batzarre bat irrati bidez Euskal Herriko zoko guztietara hel arazteko aukera, esan nahi dut. Eta gaur baldin badauka, hori da, noski, Donostia, Loiola, Iruine eta Bilboko Herri-irratiek eskeini diotelako. Eratzaillei gure esker ona agertu nahi diet, bada. Eta ondoren bihoa gure agurrik zintzo eta beroena euskaldun guztiei Euskaltzaindiaren izenean.

Beste gertakizun bat ere, gertakizun pozgarri eta handia, gogoratu eta ospatu nahi dugu gaur. Dakizuten bezala, Espainiako Erregek, Juan Karlos jaunak, Euskaltzaindiaren nortasuna aitortzen eta baiezten duen legea eman du. Eta gertakizun hau gurekin batean nolabait ospatzera etorriak dira gaur euskal Diputazioetako ordezkari jaunak. Izan ere, Euskaltzaindia lau euskal Diputazioek elkarrekin sortutako erakundea da. Euskera zaintzeko eta euskerari buruzko arazoetan

gidari eta bide erakusle izateko sortua. Orain arte, bere ahalen neurrian, egiteko hori betetzen saiatu da, eta hemendik aurrera, eman zaion aitor eta onartze honekin, uste dugu indar berri batekin arituko dela lanean eta aurpegia atera ahal izango duela euskeraren alde. Baina bere zeregin hori aitzina eraman ahal izateko, euskaldun guztion erantzuna eta laguntza ere behar-beharrezkoa du. Euskaldun guztiok laguntzaile eta lankide behar ditu. Eta hauxe da nik, agurtzen zaituztedan une honetan, eskatzen dizuedana. Denen zerbitzuan eta denen zerbitzurako dago Euskaltzaindia, baina denbora berean, denen beharrean ere bai.

Gure batzarreetan euskaltzainburu ordea, Jean Haritschelhar jauna, izan ohi da Moderatzaile. Berak eman ohi dio hitza hizlari bakoitzari. Beraz, orain segitun berak hitz egingo du, eta batzarre honetan parte hartuko duten jaunen berriak eta xehetasunak emango ditu.

IRRATIGINTZA ETA EUSKARA

1976-III-27

J. M. Iriondo

Egun on, jaun eta andre:

OGEITA LAU ORDUAK EUSKARAZ ematen dihardugun egun honetan, EUSKALTZAINDIAREN bilkura honetan hitz-bidea izatea, iduri zait, lan luze baten ondorioa eta fruitua dela. Urte askotako bideurratze baten ondorioa dela sinesturik nago, KOMUNIKABIDEEI eskaintzen zaien bilkuran, irratigizon bezala azalduko bait naiz, lehenik.

Honaiño heltzea, harrokeriarik gabe, jardun luze baten eskerra bait deritzait.

Irratigintza eta euskara

Noski, ba dakit ez naitekeela luzaz mintza, gai honetaz. Gaiñera, ez zait ere gehiegi gustatzen luzaz aritzea. Egin ditugun lanak, hortxe bait daude, lekuko; eta hitzak baiño lan bera, hitzezko lana gure kasuan, atsegiñago zait.

Irratigintza bera, hemen, Euskalerrian, aspaldi xamarrekoa dugu, noski. Berrogeita amar urte-edo ospatu berri ditu norbaitek, lantegi orren jardunean.

Hala ere... irratiak euskara erabili, ondotxo ere geroago hasita erabili du gure herrian. Askok gogoan dukete, noski, oraintxe 28-30 urte hasi zirela lehen irratsaioak. Euskaraz zerbait ematen haste harek, harrera ezin ohea izan zuela, zer esanik ere ez. Baserri askotan, eta... kale zuloan sarturik zegoen baserriar askoren artean, premia gorrizko ziren euskal-irratsaioak.

Halare, giro horretan zetozen soil-soilik. Baserri-giroan, alegia. Baserri kutsaduraz. GARO EUSKAL HERRIARI atxiak, eta... giro hari erantzunez, ziñez.

Lotsa zen euskara, momentu haretan. Lotsa zen, eta... BASERRIAK ZIRAUEN ARTE EUSKARAK ERE iraungo zuen esperantza eta kontsolamendua bakarrik gelditzen zitzaiozkon. Uste eta iritzi hori, arrats zabaldua izan zen gure herrian; eta oraindik ere, asko ta askok, horri heltzen bide diote. Baserria omen Euskararen kabi eta bizi-toki bakar. Azken-urteak emateko atsedeen toki..

Gaurregun, uste horiek, gaindituak daude, noski. Euskarak, baserrian bakarrik ez du ezer egitekorik; eta... kaleratu beharra zuenez, euskaldunok nahi izan dugun mailla ta tamaiñan, kaleratu ere da.

Irratiek baserri-giroari erabat lotzea, ez zen, iñola, euskara beraren mugatzea. Halaxe behar zela uste zutenena baizik. Hizkuntza beraren ahulezia baiño, gizonena gehiago.

Baiñan, maila hura gabe, gaurkoa ere ezinezko gerta zita-keen. Gertatuko zen, seguraski. Kateak, lehen mailla eta aurrenengoa ere, beharrezkoa izaten bait du.

Irratigintza eta euskara

Direla hamabost-hamasei urte, edo... bat-bi gehiagoz honuzkoa dugu, batez ere, euskara eta irratigintzaren kide-tzea. Orain hogeitsu urte, Euskalerrian, parroki babeseko irratiak lanari ekin zioten. Eta... lehen baiño ere euskara gehiago ematen zen. Baserri-giroari lotuak zegiten ordea.

Geroago, 1.960-61-62 garren urterantz, aldaketa bat hasten da. Eta ordutik onuntz, giroa lantzen, zabaltzen eta hedatzen joan zaigu. 1.960go urte inguruan, hemen Gipuzkoan, ba genituen hamar irrati inguru. Batzuek indartsuago, besteak apalago. Batzuk besteak baiño euskaldunago.

Nafarroan ere, ba ziren beste dozenardi bat. Edo zazpi. Bizkaian, lau-bost; eta Araban, bi-hiru.

Mugaz handik ere, hemengo aireak bultzaturik edo eragirik, euskarazko emankizunak hasi ziren. Noski, hemengoak, Madril-en zuten zuztarra. Hangoek, Paris-en. Goitik behera zetozen.

Katearen beste maila bat, zalantzarik ere gabe.

Benetan eta serio euskal-alorrari heldu, 1966 eta... piko-tik aurrera heldu zaio. Bide berrietan finkatzen, errotzen, sustraitzen, ordutik hasten da. Herri irratien lana, batez ere. Hori, ez nuen aitortu beharrik, baiña... ixiltzea ere, benetako ez den umiltasun bat dela pentsa zezaken norbaitek.

Lan berriak, larritasunak ere oso berekin ditu. Bide asko egiteko, eta... neurri asko emateko aurkitzean, beti da etsi-arriskua. Hala ere, aurrera egin behar zela, eta... aurrera egin genuen beti. Eta aurrera egiteko gaude.

Noski, gaur goizeko mahian inguru batetan, KOMUNIKABIDEEI buruzko jardunean nere lagunak zioten bezala, oraindik egiteke dagoen molde asko da. Oraindik urratzeke dagoen bide asko. Baiña, egin ezin daiteken guttiago.

Gizonak eta hizkuntza (hau gizonen ahalmen araberan), irratia eskatzen duen zalapartako eta etenbako berezitasunera egiten eta gaitzen doaz. Lan askoren eta saiatze luze baten ondorioak, lehenago egiteke zegoen bide asko, idekiak ematen dizkigu gaurregun.

Hasiera batetan, pauso bakoitza edre, TABU bat izaten zen. Egiten zenuen esperientzia bakoitza, txalo edo... kritika gogor baterako bide.

Hortik sortu ohi, hainbat beldur eta ikara. Eta askotan ere, ausardia eta lotsagabekeria. Esamesak eta bakoitzaren jorraketak.

Hala ere, txetuaren menduak, asko, itsatsiak daude, gaur. Beste giro batetan lan egiten da. Txalo gutxiago eta kri-

tika gehiago izaten da, agian, gaur. Baiña, hori, bost ajola du. Jendea, entzuteko, ematen duzuna jasotzeko, beste ingurugiro batean da.

Euskara

Noski, sarritan esana dugu lehen ere. Gaurregun, irratian, edozein gai erabiltzen da. Baldintzapen batzuek gora-behera.

KULTUR GAIK, LIBURUGINTZA, IRAKASKINTZAko gaiak, EKONOMIA, ARTEGINTZA, hitz gutxian esateko, EDOZER. Gizonen ahalmenaren maillan (irratigizonen maillan alegia), erabili, edozer erabiltzen da, euskaraz. Ondo edo gaizki. Lehengo baserri-giro soilaz gain, beste gai asko entzungo dituzue. Geroz gehiago izateko nahi eta esperantzaz gaiñera.

Baiñan... euskara, zer? Noski, irratigintzan, uste dut aldizkarigintzan baiño gehiago, hizkuntz funtzional baten moldeak eginak edo... egiten daude. Sarritan, asmatzen dugu. Besteetan gutxiago. Baiña, hitz zahar asko, eta... berriak ere ugari, zabaldu dira. Edonork, ahotan darabilzki. Eta... ez zaizkio arrotz egiten. Ez beintzat lehen bezain arrotz eta ulergaitz. Ohitura bat sartu da. Eta... hitz eta moldeak egiteke daudenarren, sarri, ohitura egiña da. Arrisku eta guzi.

Hemendik aurrekoan, gainditu ez den bide asko gainditzeko eta finkatzeko bide bat, agian, orixe izan bait diteke: ohitura sor, eta... lan egin nahik duenari, bideak ideki. IRRA-TIA, KOMUNIKABIDE denez, zerbait esatekorik duenari eskaintzea ere, sekula baiño aregoa, oraingoa bait da.

Irratiak ba ditu bere muga eta ahuleziak. Entzun egiten da. Ez ikus. Ala ere, belarriak, gizonarengan, ba du indar ere kemen. Eta... askotan ikusten ez dena, ikus ez daitekeena, irratia, etxera daramazu. Hitzak, belarriz ezartzen dizkigu. Horrek garrantzia haundia duela, nabari da zalantzarik gabe.

Bestalde, eta... amaitzeko hau, IRRATIGINTZA BERRI honekin pare, beste gertakizun bat eman da Euskalerrian: gure egunotan bizi dugun kulturgintza. IKASTOLAK, KUL-

TUR ASTE, ITZALDI, LIBURUGINTZA, ALDIZKARIGINTZA, ALFABETATZE SAIOAK, GAU ESKOLAK (1)...

Irratiaren indarberritzearekin paretsu ernetzen hasten diren landareak dira. Halabeharrez? Irrati-ekintza bera, eragile gertatu delako? Oker banengo, barka.

Eta... besterik ez. Zirri-borro honetan, erdi-historia, erdi-amets bezala ibiltzea nahi nuen. Ez dut gehiagorik luzatuko. Baiñan, bai gure irratian gaur ahotan dabilen esakun bat gogoratuko: EZINA, EKINEAN, EGUNA.

Antzerkigintza

Gai honi buruzko txostena, Antonio Maria Labayen dolo sar idazle ezagunak zuen egitekoa; anaia bat hil zaio ordea egunotan. Eta... ezin etorria adierazi digu.

Gure doluminak, familia osoarentzat, saioaren hasieran.

Haren ordez, sarrerakoa, txostena, Iñaki Beobidek egingo digu, gaur.

— Lehengo antzerkiaren kondaira laburpen gisakoa entzun dugu. Orain goazen gaurkora.

Zer gertatzen da gaurregun, euskal antzerki alorrean? Idazle, zuzendari eta antzerkiegile, hemen, jende asko dugu.

— Atzerriko antzerkia itzuli eta emateak, zer ekarri digula esango zenukete, zuok?

— Hemengo antzerki tradizionala gibelera utzi eta kanpo-koaren bila joateak, ez ote gaitu galdu?

Zer esaten duzue idazleak, eta... zer antzerki-egileok?

— Antzerkiaren krisialdia, bestalde, oso oker ez banaiz, mundu osokoa da. Eta hemen ere horrela gertatzea, ez da arritzeko.

— Nolarebait aurrera egiteko, nondik-nora hasi beharko gendukela uste duzue?

(1) Bertsolari txapelketak... KANTAGINTZA...

KOMUNIKABIDEEN BEHARRA

1976-III-27

*M. Atxaga***Sarrera**

Gizona ezin da bakarrik bizi. Izadiarekin, gauzekin, abereekin, beste gizonekin etenik gabeko harremanak behar ditu. Gaurregun gizonak gero eta urritiago ditu izadi hori eta gizar-te hori. Landareak, zomorroak, piztiak eta abereak liburutako argazkietan bakarrik ikusten ditu. Horma tzarrez inguraturik bizi da gaurko gizona. Irratiko hizlariaren aurpegirik ez du ezagutzen. Aldizkarian irakurtzen ari den lanaren idazlea ez daki nor den. Bere etxepean bizi direnen berririk ez du.

Oraindik orain suak hartu zuen, itsasoaren erdian, itsasuntzi bat. Urez inguraturik zen untzi hura ez zuten lehorrera ekarri arte itzaltzerik izan. Itsaso zabaleko ur guztiak alferrik ziren. Jendez inguraturik bizi den gizona ere bakarrik bizi da askotan, lagunik gabe.

Gutxi asko, gizonak beti izan du harremanetarako bide batzuren beharra. Tokian tokiko eta garaian garaiko zailtasunez eragotziak izan ditu harreman hoiek. Eta tokian tokiko eta garaian garaiko komunikabideak asmatu behar izan ditu.

Garaian garaikoak

Euskal Herriak ez zuen herri bildurik, ez zuen etxe sail pilaturik, Nafarroa eta Arabako ordekakoez aparte. Han-hermenka sakabanaturik zen jendea. Oihuaren bidez, adar-raren, txalapartaren eta abarren bidez hotsegiten zitzaion urrutikoei.

Artze anaiei esker hain ezaguna den txalaparta, urruti bizi zirenei hotsegiteko asmatua da dirudienez. Ehizerako, batzarrerako, hauzo-lanerako deia egiteko asmatua, hain zuzen ere. Euskal komunikabiderik zaharrena berau dugula esan dezakegu, beraz.

Baina guk ezagutu dugun komunikabiderik zaharrenetako kanpaia dugu. Artean etxean eta eskumuturrean erlojurik ez zenean kanpaiaren bidez jakiten genituen orduak, eta kanpaiaren arabera antolatzen genituen lanak, jatorduak eta lo aldiak. Kanpaiak adierazten zituen jaiak eta igandeak. Herrian norbait hil zela hil-kanpaiaren bidez jakiten genuen. Su-kanpaiaren hotsak jartzen zituen jendearen belarriak erne bonberorik ez zen garai hartan. Berri onen eta txarren zabal-tzaile izan dugu urtetan, gaur zaratez nekaturik eta gaixoturik garen garai honetan gogaikarri bilakatu bazaigu ere.

Eliza, eliz-ataria, alberga, erromeria eta abar ere komunikabide izan dira nonnahi eta Euskal Herrian batipat. Leku hoietan bildu eta zabaldu izan dira hango eta hemengo kontuak: egiak batzutan, gezurrak askotan, zurrumurruak gehienetan. Meza ondoan eta azoka garaian kantatu eta zabaldu ohi zituzten, bertsolariak ere, beren bertso-paperak.

Herriaren eritziak eta sentipenak jasotzen eta hotsegiten iaioa dugu bertsolaria. Bertso-paperetan kantatu izan dira gerratetako gertaerak, gorabeherak, ezkontza galtzeak, gizon-hiltzeak, ezbeharrak eta zorion aldiak. Egiatzko komunikabide izan da eta da gaur ere bertsolaria.

Kazetaritza

Baina idatzizko komunikabideetan lan egiten dudanez, gai honetara bildu eta mugatu nahi nuke neure lantxoak.

Gizonaren oroimenak gogoan ez dituen aitzinako denbora haietan, Txinak ba omen zituen egunkariak Voltairek dioenez. Eguneroko gertaerak eta pasaizoak idazten zituzten Babiloniako historilariak dira, Flavio Josefo juduaren ustez, lehen kazetariak. Demostenesek dioenez, herriko plazan bildu ohi ziren grekoak berri bila: agora hura litzateke kazetaritzaren sehaska Samuel Jonshon-en eritziz. Le Clerc-en ustez, berriz, Zesarren Erroman aurkituko genuke kazetaritzaren sorrera.

Dena den, korreo, eskritura, sal-erosketa, gutunak, eskuizkribuak, telegrafos eta abar ditugu kazetaritzaren atari. Hoiek ditugu lehen urrats.

Erdi Haroan ez zen kazetaritzarentzat girorik ez modurik. Ahotik ahora berreiatzen dira kontuak. Gazteluetan, benta eta ostatueta nahiko kontu uzten zuten erromesek. Komerziantek, istudiantek, fraileak eta gerrariak biltzen ziren lekuetan ez zen kontu faltarik.

Bi indar nagusitu ziren XII. eta XIII. mendeetan: Eliza eta Unibertsitatea. Elizgizonak eta Unibertsitateko maixuak ziren albistearen hedatzaile. Korreoaren edo postaren aitzindari izango zen mezularia, berri-emaileak: aberatsei, jauntxoei eta agintariei gutunak eta esku-izkribuak eramaten zizkien mandataria Alemanian sortu zen.

XV. mendean sortu ziren naziotako ordezkariak. Italiak, Alemaniak, Frantziak, Ingalaterrak eta Espainiak beren ordezkariak bazituzten. Beste naziotan zer gertatzen zen jakin nahi zuen nazio bakoitzak. Gutun eta esku-izkribu hauen kopia egin ohi ziren jendartean zabaltzeko. Ahotik ahora bakarrik ez ziren garai hartan berriak hedatzen, baita idatziz ere. Idatzitako lehen orriak garai hartan hasi ziren zabaltzen.

Berri inprimatuaren aitzindari dira esku-izkribu hauek. Komunikabideetan sarrerarik ez duten gertaerak eta berriak ahotik ahora eta isilkako orrien bidez zabaltzeko behar izaten dira gaurregun ere, behin baino gehiagotan.

Dena den jakin-min, berriak jakiteko gogoak gehitzen eta indartzen ari zen garai hartan. Kazetaren eta egunkarien irakurleak eta erosleak prestatzen ari ziren. Egunkari inprimatuaren gosea gero eta nabarmenagoa zen.

Eta hona egunkaria inprimatzeko bidea egin zuen gizona: GUTENBERG. Rin hibaiondoan ari zen lanean moldezko letrak asmatu zituen gizona. Liburuak inprimatzeko bidea asmatu zuen.

Berri interesgarriak edo gertaera nabarmenik baldin bazen, gazeta izeneko orrietan inprimatzen eta saltzen zituzten. Ez ziren egunero argitaratzen, ez zuten egun jakinik.

Nondik nora bataiatu zituzten *gazetta* izenez? Mika, italiar, *gazza* da, eta *gazetta* mikatxoa. Mika, gelditzen eta isiltzen ez den piztia dugu. Bestalde, liburuen zatu desberdinak pizti baten irudiz apaindurik hasi ohi zituzten XVI. men-

dean. *Gazetta* famatuaren lehen hizki edo letra mikaren irudiz has zezaketen.

Dena den, kazetak eta kazetariak badute mikaren antzeko egitekoa. Batera eta bestera ibil gelditu gabe, handik eta hemendik bildu, harat-honat zabal. Pizti gogaikarri hori da, beraz, kazetarien irudi.

Hitz honek merezi zuen zerbait argitzea, euskaldunek argitaratu zuten lehen aldizkaria "Euskaldun Gazeta" deitzen bait zen, eta, bestalde, hitzetik hortzera esaten dugun hitza bilakatu bait zaigu.

Lehen egunkaria, "La Gazette", Parisen sortu zen 1631 garrenean. Teofrasto Renaudot izan zen egunkari honen aita. Lanik gabe zen jendeak neskame eta morroi tokiak non zituen berri emango zuen orri bat argitaratzea pentsatu zuen. Baina laster zituen Richelieu kardinalaren eta Luis XIIIgarrenaren idazlanak ere. Kardinala politikaz mintzo zen. Errege, berriz, andrearekiko zurrumurru eta esamesez.

Euskal kazetaritza

Idazteko eta irakurtzeko grinarik eta ohiturarik ez du euskaldunak izan. Hitzak balio zuen euskaldunen artean. Historiarik eta legerik idazteko ohiturarik ere ez zuten izan. Euskal Herriak entzule onak eta hizlari bikainak izan ditu, baina irakurle eta idazle gutxi.

Erlijio borroka sortu zenean idatzi ziren lehen euskal liburuak. Euskal aldizkariak, berriz, politikako borroken fruitu ditugu. Errepublikazaleei erasotzeko sortu zen EUSKALDUNAK deitu aldizkaria 1887garrenean. Lafittek dioenez "bai gorri deitu ezkertiarrek, bai xuri deitu eskuindarrek" euskaldunen botoak biltzearren idazten zituzten beren paperak euskaraz.

Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian politikazko giro bati erantzun nahirik sortu ziren zenbait aldizkari. Eta giro horretan sortu zen, bizitza laburra izan zuen, EGUNA lehen egunkaria.

Irabazleak idatzi omen du historia. Bestek idatzi du euskaldunon historia. Beste batzuk mintzo izan dira gutaz eta

gure orde. Euskaldunon abotsa ito egin dute beti. Eta abots horren lekuko, distira eta oihartzun izan nahi zuten euskal komunikabideak ere itoak izan dira jaio bezain agudo, han eta hemen.

Izan ere agintedunen eta dirudunen esku izan dira eta diraute, oraindik ere, komunikabideak. Munduko indarren artean, laugarren maila eskaintzen zaie komunikabideei. Egia esan indar bortitza bilakatu dira komunikabideak. Zoriturrez, ordea, irabazleen, indardunen eta dirudunen esku dira neurri haundi batetan.

Eta bere buruaren jabe ez den Euskal Herri txiki honek ez du bere komunikabiderik eta ez du besteren komunikabideetan sarrerarik.

Besteak beste, bere nortasuna gorde nahirik eta bere jabetasuna lortu nahirik borroka diharduen Euskal Herri honek, munduko komunikabideetan bere lekua egiten saiatu behar du. Gure eritzian, nahian, usteen eta abarren berri geuk eman behar diogu munduari. Gurekin zerikusia duen munduak izan dezala gutaz guk merezi dugun eritzia.

Bestalde euskarari bururik jasotzen utzi ez zaiolako, irakaskuntzan eta administrazgoan lekurik eman ez zaiolako eta langile eterkinak euskalduntzeko erarik izan ez dugulako, gure esku ez diren komunikabideek arrotutako jende asko bizi da Euskal Herrian. Jende hori guztia eskuratzeko eta gureganatzeko geure esku ditugun komunikabideak behar ditugu.

Eta azkenik Euskal Herria euskaldun izango baldin bada euskal komunikabideak behar ditugu. Munduak gutaz eritzi ona izatea ez da aski. Ezta gure artean ditugun deseuskaldunduak edo euskaldundu gabeak euskaltzaletzea ere. Euskal Herri osoa euskaldundu behar dugu. Eta Euskal Herria euskalduntzeko bideetarik bat euskal komunikabideak ditugu.

Hortik urtearen haserako garrasia: *1976garren urtea euskal kazetaritzaren urtea*. Itxurazko euskal aldizkariak egiteko hainbat irakurle eta kazetari sorturik da dagoeneko. Astekarien orduak jo digu. Erdarazkoen inbiritik gabeko astekariak egiteko garaia iritzi zaigu.

Eta bide batez euskal egunkari bat egiteko urratsa eman behar dugu poliki-poliki. Ikastoletan dabiltzan gaurko hau-

rrak gazte bihurturik ditugu laster. Karrera egiten ari den jende asko ari da euskara ikasten eta lantzen. Beren fruitua ematen ari dira gau-eskolak.

Komunikabideen beharra dugu euskaldunok, alor guztietan geuron buruaren jabe izan nahirik dihardugun une honetan; bidegurutzean eta guruzbidean geuron geroa hautatu beharrean garen garai honetan. Eta lau Diputazioetako ordezkarien aurrean ari garenez gero euskal komunikabideei lagun diezaiela eskatuko genieke.

EUSKAL KAZETARITZA GAUR ETA BIHAR

1976-III-27

Joan Mari Torrealdai

Sarrera

Txostentxo honen izenburua, neuk jarria izanik ere, zabalgitzat jotzen dut. Mugatuz hasteari hoberena derizkiot, beraz.

Gaur eta bihar esaterakoan hona zer ulertzen dudan. Gaur, oraina da eneretzat lan honetan. Eta bihar hori ez dihoa oso urruti, bihar hurbil batetaz ari bainaiz. Gehienez ere zein urte honetan zein bost urte hauen epe barruan sartzen den etorkizunaz mintzo naiz maizenik.

Mugatzeari ekinaz esan dezadan, komunikabideak oro ez baino kazetaritza aipatzea dela ene lana. Eta kazetaritzan ere idatziari bakarrik lotuko natzaio, irratiaarena beste norbaitek aztertuko duela jakinaz. Mass mediatan aberatsena eta bortitzena —telebista— ez du inork aipatuko hemen, arrazoi sinple bategatik, gainera: ez dugulako (duguntxo aiantzi gabe ere). Beraz, kazetaritza idatziaren arazoketa da, gaingiroki bada ere, hemen zuen aurrean aztertu nahi nukeena:

Euskal kazetaritza modan dago aurten. Moda igarokorra baino zerbait gehiago dela uste dugu. Ezagutzen ditugun asmo eta proiektu batzuk ezaguturik, etorkizun hobeago baten segurantzia du euskal kazetaritzak.

Urtearen haseran ZERUKO ARGIAK, 1976 urte hau kazetaritzaren urtetzat jo zuen. ANAITASUNAK ere gai bera plazaratu zuen, geroxeago, gaiaren hedadura zabalduz, halegia, euskal komunikabideen arazoa planteatuz. Kontzientzi berri honen herroak urrutiago ikusi behar direla esango nuke, hots, 1960 inguruan hasi zen kultur mogimendu bortitz haren fruitu zoria besterik ez bait da hau: Urte honen hasera bertatik baitipat, kazetarion mahain inguruak eurrez ugaltu dira. Euskal Herri osotik hartzen ditugu deiak, eskariak, zazpi probintzietatik, huri handietatik, herrixketatik, alfabetatze eta gau eskoletatik eta Unibertsitatetik. Irratian bertan ere behin baino gehiagotan egon gara. Azkenekoz, gaur goizeon izango dugu mahain inguru bat aldizkarietako zuzendariok edo antolatzaileok.

Sariak ere ba dira. Ba zen LAUAXETA saria, bi aldiz emana, 1964 eta 1965ean. Duela bi urte GEREDIAGAK beste bat sortu zuen: KIRIKIÑO saria Durangon, urteko periodistarik hoberenari ematekoa. Donostiako Udaletxeak ere sortu berria du beste bat: BILINTX saria. Ez dela aski aitorturik ere, ba da zerbait, eta gehiago sortuko direlakoan gaude.

Hitzetan eta Saritan ez da dena agortzen. Ez dena eta ez garrantzizkoena. Aldizkari nagusietarik hiru arras aldatu zaizkigu, urtearekin esan dezakegu: GOIZ ARGI, ZERUKO ARGIA eta ANAITASUNA. Itxurazko aldakuntza bakarrik ez da; planteamoldeak ere kanbiatu dira, kazetaritza ulertzeko eta gizartean duen eginkizuna baloratzeko kategoriak ez dira lehengoak. Dinamika berri bat bereganatu du euskal kulturaren eta euskal gizartean kazetaritzak. Aldien zantzu bat da, zalantzarik gabe. Dinamika biziago honek azpitik duen kontzientzihartzeari arrazoi nagusi bat ikusten diot nik: etorkizuna ireki zaigula ustez, ahalbide zenbait posibleztatu egin zaizkigula ematen du, eta orduan gure asmamena lanean hasi da. Kontzientzi berri hau, biziki politizatua ageri zaigu: euskal kazetaritzan, gainontzeko eremutan bezala, politikaren interesak eta eragin-gurariak nagusitu egingo zaizkigu. Euskal politika batek bere komunikabideak behar ditu. Ez ahan-tzi "laugarren agintetzat" joa izan dela prentsa bera.

Euskal kazetaritzaren egoera

Daukaguna aipatuz hasteari derizkiot bidezkoena. Euskal Herrian, gehien irakurtzen diren euskal aldizkariak hauk

dira, alfabetoaren arabera emanak: ANAITASUNA - GOIZ ARGÍ - HERRIA - HITZ - ZABAL - ZERUKO ARGIA.

Baionako HERRIA aparte, gainontzekoen lege kondizioak anormalak dira denak. Hiruren jabegoa frailen eskutan dago (frantziskotarrenak dira ANAITASUNA eta GOIZ ARGÍ, eta kaputxinoena ZERUKO ARGIA.). Lege baimena murriztapenik handienarekin emana dute Hego aldean ateratzen direnak: erlijioso gaietarako ANAITASUNAk, erlijioso eta eskualde gaietarako ZERUKO ARGIAk, eta haseran bederen, baserri gaietarako GOIZ ARGÍk.

Lege baldintzekin jarraituz, esan dezagun amaitzeko Frantziako Estatupean ateratzen diren ZABAL eta HITZ ezkutan zabaltzekoak direla hemen, nahiz eta, oso oker ez banago, abonaturik eta irakurlerik gehienak mugaz honunzko aldean ukan. (ZABAL eta HITZ, prentsa idatziaren planteamendu hertsí batetan ez nituen hemen aipatu ere egin behar, ba dakit, bata hilabetekaria eta bi hilabetekaria bestea baitira. Gure urritasuna konduan ukanik aipatu nahi izan ditut hemen.).

Gerra ondoko euskal prentsaren erritmoa, asterokoa izan da. Eta asterokotasun hori bera ere nahikoa ahul eta faltsoki (Astero atera arren, astekariaren planteamendurik gabe askotan.). Inolako laguntzarik gabe bizi izan da, malbizi izan da aldizkarigintza. Alde guztietako kondizionamenduak atxiloturik izan dute, gainera. Batzuk aipatzearren, nagusitxoek jarriko ditut hemen: baldintzapen linguistikoak, kulturazkoak, ekonomikoak; denak, azken batean, politika baztertzaille eta negatibo bat iturburutzat dutelarik.

Euskal kazetaritza, gaur egun, agerizko atzerapen eta handicap izugarri batekin ateratzen dela plazara, bistakoa da. Frantsesek esan ohi duten hemengo kazetaritzaren "parent pauvre" besterik ez da. Erdal kazetaritza da nagusi Euskal Herrian. Zenbakiak, xifrak ezagutzea erraza ez bada ere, ba dirudi ia 100.000 bat edo saltzen dela CAMBIO 16; MUNDO, bestalde, gehienbat hementxe saltzen da. Eta ba da besterik. Astekarien mailan hori, hots, gure erritmoarekin zerikusirik duen mailan, zeren eta egunkariaren mailan ez dugu asmoa besterik.

Gaur egun kanpoko erdal aldizkariak bakarrik ezagutzen baditugu ere, giro eta inguru hautan dabilztanentzat ez da

inolako segeturik ba datozela Euskal Herrian bertan hainbeste eta hainbeste aldizkari, astekari erdaraz. Hauzi askoren artean, hizkuntzarena izanen zaigu hurbilko etorkizun honetan aldizkari berri hauekin planteatuko zaiguna. Euskarari zein leku? Zein gai? Zein proportzio? Zein euskara?

Sortzear diren aldizkari hauen bizpahiru alderdi berezi aipatu nahi nituzke hemen zuen aurrean:

. Politika taldeek interes handia dute aldizkarigintzan esku hartzeko. Projektu horietan politika aski agerian dago, bai talde gisa eta, normalago dena, bai joera nabarmen gisa.

. Hizkuntzaren —euskara-erdara— proportzioaren eta orekaren hauzia testuinguru honetantxe ikusi eta neurtu beharra dago, ene ustetan. Diglosia nagusituko den, edo elebitasuna eta, luzarora, euskara, hori... Euskal Herrian zein politikazko mogimendu agintedun bilakatuko den alde z aurretik esatea litzateke; azken analisisian, hizkuntzaren garaitzapena politikazko garaitzapenaren pentzura joango da.

Etorkizuna

Oraingo aldakuntza hauek zerbait esan nahi badute, hau xe adierazten dute gauza guztien aurretik: euskal kazetaritza heldu eta profesionaldu bat premiazko dela, beharrezko, urgente. Kazetaritzaren arazoketa, literatur-mota, espresio-modu autonomo eta berezi bezala, gerra ondoren, bederen, oraintxe planteatzen da maila hautan lehendabizikoz.

Egunkari bat ote datorren ere entzun dugu: *Erria*. Ditudan datoekin egunkari horren etorkizun periodistikoan ez dut sinesten. Goiz da egunkari batentzako. Zoritzarrez, goiz. Bernardo Arrizabalaga kazetariak ANAITASUNAn idatzi duenez, "Euskal egunkari batek euskal telebistaren eta irratia ren atzetik etorri behar luke, mass media handi hauen bidez euskara hedatu eta gero". Catalunyako kasua ez da bera.

Astekarien ordua da gurea. Orain arte ezinean, voluntarismoan, eta amateurismoan ibili garen mundu horretantxe, urrats bat gehiago egin behar dugu. Gure ekonomiazko zangoak bustinezkoak ziren orain arte. Memento honetan egiten diren planteoak arras profesionalak dira, bai lege aldetik, bai ekonomi aldetik, bai lanmoduaren aldetik, bai hizkuntzaren aldetik. Esaterako, ANAITASUNA eta ZERUKO ARGIA informazio jeneral bilakatuko dira, oraingo legearen tolerantziaz

baliaturik. Lanmoduaren aldetik, tituludunak eta liberatuak (batez ere hortara emanak) izanen dira aurrerantzean kazetaritza munduan dabiltzanak, ez orain arte bezala, plurilanetan itorik. Euskal kulturaren leku garrantzizko bat irabazten ari da euskal kazetaritza, egindako kanbioak abiapontu besterik ez dira eta.

Eta azkenik esan ditzadan bi hitz, *Euskaltzaindian* bildurik gaudenez gero, kazetaritzak euskal kulturari eta hizkuntzari ekar lezaizkiokeen onak eta hizkuntzaren egoeratik datozkion trabak aztertuz.

Euskaltzaindiak horren arretaz aurrera daraman batasun burruka honen lehen zentzuetarik bat, nere ustetan, hizkuntza standard eta funtzional baten beharrianari erantzutea izan da. Inork hizkuntza-modu horren beharrik nabaritzen badu, periodistak egiten du hori: hizkuntza egina, erabilia, txikitua, ehioa, bat-batean botatzeko moduko hizkuntza, hona kazetariak behar duena. Hizkera hori gertutzen egin du, bai, lanik orain arte ere kazetaritzak, eta askoz gehiago egin beharko du aurrerantzean, gaurgero.

Hizkuntzaren alorrean ba da beste puntu bat ere: idaztan-kerarena. Euskararen tradizioa nondik nora ibili zaigun eza-gutzen dugu. Laburki esanda, olerkitik eta saiaeratik. Tradizio hau dela eta, eta gaur egun periodismoan gabiltzanok kazetari baino gehiago idazle garelako (aldizkarietatik gatoz gehienok), hizkuntza periodistikoa eta estilo periodistikoa falta zaizkigu. Gusto surrealista, kolorezale eta espresionista (galduz badoa ere) gehiegi dago euskal kultura idatzian. Poeten hizkuntza ez da albistariarena. Jose Azurmendik esango lukeenez, "oinezkoen euskara pratikoa" behar luke izan kazetarien euskarak. Esan nahi baita, hizkuntza bizia, segurua, plastikoa, zehatza, arabeskorik eta barrokorik gabea, "esku-estilos", Jose beraren hitzetan. Euskal kazetarien eskola bat sortu behar genuke. Euskal kazetaritzaren eskola bat (gutienez, aldizkari guztiek bateraturik ikastaldi batzuk antolatu beharko lituzkete. Udako Unibertsitatean hoberena?).

Herri giroan egin du lanik jatorrena; esan bezate ordezkaritza bakoitzean agiriak ematen dituzten arduradunek. Neuk jasotako berri, eskutitz, idazki eta erantzunekin bakarrik, hiru bat mila fitxa badut.

Lege berria

Aurtengo otsailaren hogeian Madrilgo agintariak Barzelonan hartutako erabakiak aldatuko ditu gauzak. Edozein hizkuntzetan ezartzen ahalko omen dira jendeen izenak.

Aurrez agintariekin harremanak izanak genituen. Escrivá de Romaní, Errejistrotako agintari nagusiarekin egonduginen 1973-an, eta itxaropen piskaren bat eman zigun. Handik laster bota zuten kargutik eta ezer egiterik ez genuen izan. Oraikoa gauza nundik nora dabilen jakin nahi nuen, eta berri jakingarriak jaso ditut. Madrilgo zuzendari nagusiak dionez (Director General de los Registros y del Notariado delakoak), orain arteko eragozpenak kenduko omen dituzte; bereizkuntzarik gabe hizkuntza guztietako jende izenak ontzat emango omen dituzte. (1)

Arazo hau, orai, ez dago gobernuaren eskuetan Korteetako erabakiaren zain baizik. Jaso dut prokuradore jaunei bidali dieten deia ere. Hiru puntu dakartza: Espainiako edozein hizkuntzetan ezartzen ahalko direla izenak, aurrez ipinitakoa aldatzen eskubide izango dutela gurasoek, eta 'Boletinean' agertzen den biharamunetik balioko duela. (2)

Hau hala izanik, *Euskal Izendegiaren* bigarren argitalpena zabalagoa eta egokiagoa egin daiteke. Hara hemen asmo nagusien laburpena:

(1) Texto de la respuesta del Ilmo. Sr. Director General de los Registros y del Notariado: "El tratamiento de los nombres regionales que contenían estos preceptos desaparecerá cuando entre en vigor el Proyecto de Ley de reforma del artículo 52 de la Ley, que próximamente habrá de discutirse en las Cortes, pero es natural que, mientras esta Ley no se apruebe, exista un interregno de cierta inseguridad. La Ley, desde luego, va encaminada a permitir sin excepción alguna los nombres propios de cualquier región española y no necesita de desarrollo reglamentario alguno, por lo que será de aplicación inmediata."

(2) Texto insertado en el nº 1492, del Boletín de las Cortes, de 24.IV.1976, pag. 36055:

"Artículo 1º. El párrafo primero del artículo 54 de la vigente Ley del Registro Civil, de 8 de junio de 1957, quedará redactado en la siguiente forma:

"En la inscripción se expresará el nombre que se dé al nacido. Tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en cualquiera de las Lenguas Españolas."

"Art. 2º. A petición del interesado o de su representante legal, el Encargado del Registro sustituirá el nombre propio, impuesto con anterioridad a la vigencia de la presente Ley, por su equivalente onomástico en cualquiera de las Lenguas españolas."

"Art. 3º. La presente Ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el 'Boletín Oficial del Estado'."

Helburuak

I. Haste hastetik gure helburuen berri ikasi beharra dugu, legearen zirrituak jakin, oztopo egin ez dezagun. Dirudenez, oraingo egoera berriak bide berriak irekiko dizkigu; *bide* esan dut, ez basamortu. Izen guziak ezartzen ahal izateak ez du, noski, bakoitzak nahi duena egin lezakeenik esan nahi. Datorkigun irekitasuna, gaurkoz, hauxe da: orai arte guretzat zapalgarri ziren legezko mugak kentzea. Erdararekin berdintzen gaituztela, alegia.

Erdararen lege mailan sartzen bagara, jakin dezagun zer muga dituen erdarak. Berez, persona izena behar omen du izan, jende batentzat egokia. Baldintza hau betetzeko, gurasoak eskatzen duen izena ontzat emateko ala baztertzeko eskubidea ematen dio legeak arduradunari. Eskubide ez ezik, izenaren nortasuna zaintzeko agindua ere bai. (3)

Legezko eragozpen nagusiak aipatuko ditugu:

a) Entzute gogorreko hitzak edo gordinak; edozeinentzat lotsagarri gerta litezkeenak; ez egokiak, eta abar. *Txerri, alu, urde e.a.*

b) Ar-emeen arteko nahasmenik sortu lezaketenak. Lehen baziren erderaz, *Trinidad, Rosario, Corpus*, bietara erabiltzen ziren izenak. Azken urteetan legez eragotziak dira. Baldintza hunen aldetik, Arana-Eleizalderen izendegiak traba asko sortu lezake gaur. Nolabait *a* hizkiarekin bukarazi nahi zituen gizonezkoen izenak, *Adelaida* erderazko emakume izena, euskeraz gizonezkoena gertatzen zaio; eta *Adelaide* ematen du emakumezkoentzat.

Hitz bietan esateko, mugatua dago gerorako ere gure izenen bidea, eta Euskaltzaindiak gero ta lan gehiago izango du, sortu den giroan, eskabide guziei erantzuna ematen.

II. Bigarren argibide bat egokitasun mailakoa, geuk egin beharko duguna da. Zer-nolako *Izendegia* nahi dugu? Iritzi bakar batzu entzun ondorean kezkatu gelditu naiz ni. Era askotako bitxikeriak entzuten dira:

a) *Elizako Santu-izendegia euskeratu behar ote dugu?*

(3) Lehen aipatutako idazkian Madrilgo Zuzendari nagusiak, honela dio:

“El Encargado del Registro Civil en el ejercicio de su función tiene el derecho y el deber de examinar si el nombre propio propuesto para el nacido en la inscripción de nacimiento se ajusta a las normas legales sobre inscripción de nombres...”

Jende askoren kezka hori da, noski; *Margarita* nola esan euskeraz, edo *Afrodisio* eta *Hermogenes*. Erromatarren izendegia oso sarturik daukagu gure artean; ez genuen gehiengotan beste aukerabiderik izan. Ateak irekitzean nor berak duen izena euskeraz esan nahia gogoratzen zaio bakoitzari. Hori ahal da gure helburua? Izendegi handia egin genezake.

Maila huntan, sartuenik daudenak jasoko nituzke nik; herriak erabiltzen dituen euskal kutsuko izenak: Aingeru, Salbatore, Azentzio, Kontxesi, Mikel e.a. *Acisclo* eta *Acacioren* antzekoak beste nunbait.

b) *Mordoilokeria* da beste askoren ametsa. *Kolestin* eta *Kolestiñe*, Celestino esan orde; *Acacio* eta *Acisclo* ez bagenituen gogoko, *Akaki* eta *Akilin*, heuren ordezekoak etzaizkigu atseginago. Hau ote gure jokabidea?

d) *Euskal Izendegia*. Aspalditik genuen gure asmo zaharra, nor beraren iritzia errespetatuz euskal kutsuko izendegi jator bat egitea zen. Bide huntatik jarraituko nuke nik. Eta hori egiten joateko iturri frango badugu:

EUSKARA, ERDAL EGUNKARIETAN

1976-III-27

Xabier Aranburu

Euskaltzainburua
Euskaltzainak
Agintariak
Adiskideok

Euskarak, hego Euskal Herriko egunkarietan, gorabera asko izan ditu, gerra eskeroztik beinepein.

Ni, oso zaharra ez izan arren, ikusmira asko ezagutua naiz. Adibidez, euskaldun batek, bere familiko bat hil ondoren, euskaraz idatzitako eskela argitaratu nahi baldin bazuen, derrigorrez beste bat erdaraz ipini behar zuen. Hau da: bi eskela; biek ordainduta. Euskaldunari, euskal hizkuntza erabiltzea, erdaldun batera berea ibiltzea baino bi aldiz geiago kostatzen zitzaion.

Erdal idazki edo artikulu batean, euskaratik zetorren hitz bat ipintzean, debekatua zegoen, egunkari batean, euskal ortografiaren idaztea. Ala, ezin zen *txistulari* hitza "tx"ekin jarri, "ch"kin baizik. Euskal izen bereziak —Mikel, Koldo,

Iñaki eta abar—, hoiien ordeztu —Miguel, Luis, Ignacio— idatziz behar ziren.

Bestetan, lantxo batean, euskal olerki baten pasartea idaztean, zati hori bere itzulpenarekin ipini behar zen. Egunkari berean, erraxa izango litzake ohar bat frantzesez edo alemandarrez itzulpenik gabe arkitzea, ohar hura Donostian bizi ziren frantzesak edo alemandarrak bidalia bazen, adibidez, beuden batzar batera deia eginaz.

Agirian dago holako gauzak umekeriak besterik ez direla; eta gehienetan, nere ustez, goi mailatik ez zetozten aginduak, baizik zuzendari baten beldurak, norbaiten presioak, honi edo hari gusto eman nahia eta abar.

Esan nahi dut egunkari bakotxetan gauza desberdinak gertatzen zirela, eta zuzendari baten eritziak edo beldurak agintzen duela.

Denbora haik joanak ahal dira?

* * *

Pixkana-pixkanaka, euskara agertu zen erdal egunkarietan.

Lehenengoa, euskaraz idatzitako lan bat argitaratu zuena, Donostiako "El Diario Vasco" izan zen. 1962ko azaroan, Gipuzkoan egiten ziren merkatuen goraberak, bai erdaraz eta euskaraz ere, ostegunero ematen hasi zen. Ordutik jarraitzen du.

Gero —1966ko apirilan— "Diario de Navarra" k sortzen du bere, hamabostetik hamabosterako "Nafar izkuntzan orria".

Urte berean —uztailak 3— Donostiako "La Voz de España" n, Basarri hasiko da euskaraz idazten. Bere lanak egunero azaltzen dira. Egunkari hau bakar bakarra da Euskal Herri osoan, egunero lan bat euskaraz argitaratzen duena.

1969 an "El Diario Vasco" k, igandeko ebanjelioa bi hizkuntzetan emango du, urte bete geroago bere euskal orria azalduaz.

1971 —maiatzak 31— Donostiako "Hoja del Lunes" dela-koak argitaratuko du, lehenengo aldiz, euskaraz idatzitako artikulua bat. Jarraitzen du, eta esan beharra da, Euskal Herri osoan, astelenero agertzen diren periodikuen artean, Donostiako hau bakarrak euskaraz zerbait ipintzen duela.

Urte berean, Bilboko "La Gaceta del Norte" orri bat bi hizkuntzetan idatzia argitaratzen hasiko da. Lehendabizi astearteetan bakarrik, gero ostiraleetan ere bai, eta azkenean, astean hiru aldiz. Baina egia esan... azken azkenean orri hori etzen gehiago argitaratu. Hau 1974 gn urtean gertatu zen.

Bilboko euskal orria etzen euskaraz bakarrik idatzia, gauza berak bi hizkuntzetan zetozen.

Orain dela urte ta erdi "La Voz de España" k bere "Igan-deko euskal orria" sortuko zuen.

* * *

Ez dugu zuzendari bat bakarrik ere euskaraz dakienik. Eta hau garrantzizkoa da.

Herri bat ulertzeko, ez da gutxiena herri, horren hizkuntza jakitea. Nahiz eta gero hizkuntza horretan ez idatzi, baina hizkuntza herri baten adimina, estruktura mentala den ezke-roz, bere mintzaira ezagutzea derrigorrezkoa da.

Zuzendariek ez badakite, zenbat kazetari euskaraz mintzatzen dakitenak ditugu?

Nik eginako estadistika gaizki ez badago (eta hau ere gutxi gorabera) Euskal Herriko egunkarietan —euskaraz dakitenak eta ez dakitenak— 178 kazetarik lan egiten dute.

178 kazetarietatik, 7 bakarrik euskaraz mintzatzen dira. Hau da: 100 etik 3,9. Zenbaki tristea noski. Ondorekoak zuek atera.

Baina badira kazetari gehiago. Batzuk bere karrera bukatu ondoren oraindik lan finkatu bat arkitu ez dutenak; besteek irratietan lan egiten dutenak, edo telebistan, eta abar.

Denetatik gaur arte —berriro nere estadistika gaizki ez baldin badago— 215 kazetari gaude Euskal Herrian. Eta hoietatik 10 bakarrak euskaraz dakite.

Esan nahi dut, goizetik gauera, norbaitek asmatuko balu, katalandarrak bezala, osorik euskaraz idatzitako egunkari bat argitaratzea eta orain arte legeak agintzen duen bezala tituludun kazetariak behar balu, Euskal Herri osotik bilatuta, hamar baino gehiago ez lukela sortuko.

* * *

Gaur eguneko Euskal Herriko problemak ez dituzute erdal egunkarietako euskal orrietan arkituko. Legez eta bidezkoa da esatea, Euskal Herriko dardarak eta zalantzak ezagutu nahi duenak, euskal astekarietan bilatu behar dituela.

Gehiago esango nuke. Badira bai erdal aldizkariak euskaraz dakiten kazetariak dituztenak, ikusi dugunez. Baina aldizkari hoién zuzendariak beste lanetan jarriak dituzte, ez euskal orriak idazten.

Susmoa dut, ez ote duten zuzendariék euskal orriak folklóre gauza bezala erabiltzen: moda bat da, euskaldunak kexa ez ditezten...

Nik dakidanez, kazetari tituludun batek bakarrik idazten du asteroko euskal orri horietako batean, baina horrek ez du, gehienetan beinepein, kazetari modura idazten, elerti-arauz edo literato giza baizik.

Aztertu ditzagun orri hoién gaiak: Badira bai aktualitatea duten gai batzuk: batezere, liburu berri bat buruz norbaitek kritika egiten duenean. Baina gehientan... toberak nola ziren, edesti zaharrak, antziñako abesti bat, herri jokoak, bestetan itzulpenak... Eta maizegi, barru-barruan daukagun ohitura madarikatu hori: Euskarari buruz jo ta ke: ortografia dela, ez dakit zeinek aditza ez duela ondo erabili, holako hitza gaizki esana dela... Askotan pentsatu dut, zer esan ez duenak, beti euskara bertan arkitzen duela deusere ez esateko gaia. Ez dezagun ahaztu: hizkuntza bat zerbait esateko bidea da. Nahiago da barrukoa, azala baino.

Beste gauza, oso desberdina izango litzake, gramatika edo filologia dakien batek, astero zati batean, ohartxo batzuk ematea, etimologia, euskararen berezitatei buruz, eta abar. Baina hori ere ez dugu, eztabaida agorrek baizik.

Ez dut ez inori borondate onik ez duela esango; baina uste dut behar dugun bidetik ez goazela.

Baita pentsa dezagun ere, egunkarién jabeak eta zuzendariak beste gisara idaztea nahiko luketen.

Nik, gauzak dagozten bezala azaldu ditut. Eta hemen dagozte.